



Martin Ugalde, Andoaingo idazlea

EUSKARAREN LANGILE NEKAEZINA

Maritn Ugaldek arrasto bikaina utzi zuen Euskararen literaturan, baina are handiagoa Andoaingo historian

1921ean jaio zen, Andoainen, eta Espainiako gerraren ondoren erbestean bizi izan zen urte luzez. Kultur gizon eta euskaltzalea izan zen, idazlea, kazetaria eta ekintzailea, besteak beste. Diktadura ondoko lehen Eusko Jaurlaritzan, Euskarazko Arazoetarako zuzendari nagusi izendatu zuten, eta politikagintzan ere aritu zen. Euskaldunon Egunkariaren sustatzaile eta sortzaileetako bat izan zen, eta bertako lehendakari lehen urteetan, eta ohorezko lehendakari gero, hura itxi zuten arte. 2004an hil zen, Hondarribian.

IKASKETAK

Kazetaria, idazlea eta politikaria zen. Erbesteko Eusko Jaurlaritzako lehendakariorde izan zen lau urtez Jesus Maria Leizaola lehendakariaren agintaldian. Gerra Zizilla hasi zanean 1936ean Martin Ugalde Lasalleko Anaien eskolan ikasten ari zen batxillergoa. Beranduago, Bilbora jun zan bizitzera familiarekin eta bertan bere ikasketekin jarraitu zituen Akademia Belandian. Bilbon ez zituen bere ikasketak bukatu eta batxillergoa Antxotxurin (Ziburun, Frantzia). Nahiz eta batxillergoa bukatu, azkenean ez zioten batxillergoko titulu ofiziala berari eman hainbat arrazoiengatik.



GERRA

Gerra zibilaren ondorioz, urte gogorrak jasan izan zituen. Franco boterera iritsi zenean Ugaldek 15 urte inguru zituen eta familiarekin batera Andoaindik ihes egin zuen 1936ean: Bilbo eta Mundaka bezalako lekuetatik pasa zen, eta lau urte eta bi hilabeteko esilio horren ostean, 1941ean, berriz Andoainera itzuli zen. Hala ere, kanpora joan behar izan zen laster: soldaduskara joan behar izan zen hiru urterako Marokora. Hori bukatuta 1945 inguruan Diario Vasco egunkarirako artikuluak idazten hasi zen, bi urtez aritu zen horretan Andoainen bizi zela. Eta 1947ko urrian Caracasa, 25 urterekin. 1947an bitzta markatuko zion erabakia hartu zuen. Urte hartan, Venezuelara ihes egin zuen, bere bigarren aberri bilakatuko zen herrialdera, eta han 22 urte eman zuen.

EUSKAL KULTURAN INPAKTUA

Martin Ugalde euskarazko idazle oparoa izan zen, euskal literatura modernizatzen lagundu zuten eleberriak, ipuinak eta saiakera idatziz. Bere lanek Euskal Herriko errealitate sozial eta politikoa islatzen dute, euskarazko narratiba garatzen lagunduz XX. Gainera, Euskal kausarekin konprometitutako kazetaria eta adierazpen askatasunaren defendatzailea izan zen eta euskarazko beste hedabide batzuk ere sustatu zituen, komunikazio arloan hizkuntzaren erabilera sustatuz. Horretaz gain, Francoren diktaduran, Ugaldek erbesteratu behar izan zuen Venezuelara, eta han kazetari eta idazle lanetan aritu zen. Hortik aurrera, euskal kultura defendatzen jarraitu zuen, euskal diasporaren eta Euskal Herriko komunitatearen arteko loturak sendotuz.

“Aitak ahal izan zuen unera arte, azken unera arte, idazteari ekin zion.”

Ainara Ugalde, Martin Ugalderen alaba

Zer sentiarazten da aita idazle bat izatean?

Aitak ahal izan zuen unera arte, azken unera arte, idazteari ekin zion. Idazteko zuen nahia eta beharraren lekuko izatea, beti oso bitxia izan da niretzat.

Etxean hitz egiten al zuen Martin Ugaldek (zure aitak) gerrateak ekar zitzakeen arazoenguruan?

Nirekin ez, behintzat.

Gaur egun proiekturen batean lanean ari zara bere oroitzapena bizirik mantentzeko? Edo erakunderen batek egiten du?

Bai, Andoaingo Udalarekin lanean ari gara: aitak Andoain Herria asko maite zuen, eta berari eman diogu bere liburutegia, gutunak, agiriak eta oroigarriak.

Zer da harroen sentiarazten zaituen bere eginkizuna?

Egunkaria sortu izana, euskara bera bezala maite zutenekin batera.

Zein da zure ustez Martin Ugaldek euskal literaturari egindako ekarpenik handiena?

Euskal ipuingintzari egindako ekarpena.

Zer irudi uste duzu duela jendeak Martin Ugalderi buruz? Zer arrasto utzi du?

Euskeraren alde leialtasunez eta eten gabe lana egin duen gizonarena.

SARIAK

Hainbat sari lortu izan ditu bere bizitzan zehar. Adibidez, Venezuelako literatur sari preziatuenak bereganatu zituen eta euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain izendatu zuen. Hortaz gain, hainbat ekitaldi egin dira bere omenez. Besteak beste, Martin Ugalde Kultur Parkearen sortu zuten Andoainen edota seme kuttun izendatu zuen Andoaingo udalak.

KULTUR PARKEA

2002an inauguratu zen, Martin Ugalde izenarekin, beraren omenez. Bertan daude, egoitza, besteak beste, Berria egunkariak, Euskalgintzaren Kontseiluak, Gaindegia, Aztikerrek, Soziolinguistika klusterrak eta Euskal Herriko Euskarazek.

